

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Administrazioak, profesionalak eta herritarrak bildu ditu Foru Gobernuak klima-aldaketari buruzko ibilbide-orria prestatzeko

Barkos Lehendakariak azpimarratu duenez, arazo horrek aukera bat eskaintzen du sozialki justuagoa den bizi-eredu batera aldatzeko, eta planetak ezarritako mugak errespetatuko ditu

Ostirala, 2016.eko apirilak 22

Foru Gobernuak 150 pertsona bildu ditu gaur goizean Iruñean (administrazio publikoetako nahiz enpresetako ordezkariak, adituak eta herritarrak), Nafarroako klima-aldaketari buruzko ibilbide-orria prestatzeko. Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek inauguratutako "[Klima-aldaketaren aurrean, garai berri bat](#)" izeneko jardunaldian izan da hori.

Bere [agerraldian](#), Lehendakariak nabarmendu du "arazo horrek aukera bat eskaintzen duela sozialki justuagoa den bizi-eredu batera aldatzeko, eta planetak ezarritako mugak errespetatuko dituela".

Jardunaldiak klima-aldaketa funtsezko hiru ikuspegitatik jorratzen duela ere azpimarratu du; politikoa; ingurumenekoa, ebidentzia zientifikoak ikusirik; eta ikuspegi sozial eta ekonomikoa.

Azkenik, Nafarroako klima-aldaketari buruzko ibilbide-orria prestatzeak zer-nolako garrantzia duen aipatu du, "eta bertan, Foru Gobernuko departamentu guztiak sartuko dira".

Jarraian, honako hauen hitzaldiak izan dira: Daniel Innerarity (Filosofia Politiko eta Sozialeko katedraduna, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerbasque-ko ikerlaria) "Aldaketa orokor baterako gobernantza berri bat" gaiari buruz aritu da. Javier Martin-Vide-k, (Klimatologian aditua



Barkos Lehendakaria, jardunaldiaren irekieran egindako agerraldian. Harekin batera daude, Elizalde kontseilaria (ezkerrean) eta zuzendari nagusia (eskuinean).



eta Geografia Fisikan katedraduna eta Bartzelonako Unibertsitateko Uraren Ikerketa Institutuko zuzendaria) "Klimaren zientzia. Txostenak eta egoerak. Kataluniaren kasua" izeneko hitzaldia eman du. Amaitzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko soziologo, irakasle eta ikertzaile Joseba Azkarragak "Gizartea eta klima-aldaketa: ezinbesteko erronka sozial eta ekonomikoei aurre egiteko abiapuntuak" izeneko gaiari buruz hitz egin du.

Lehehengo ilaran, hiru hizlariak. Ezkerretik eskuinera: Innerarity, Azkarraga, eta Martin-Vide.

Haien ondoren, Ingurumenaren eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusi Eva Garciak Nafarroako klima-aldaketari aurre egiteko ibilbide-orria prestatzeko prozesua azaldu du. Jardunaldia amaitzeko, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizaldekin hitz egin du.

Apirilaren 22an antolatutako jardunaldi hau egokitu nahi izan da New Yorken gaur egingo den sinaduraren hasierarekin, hau da, klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioarekin bat egitearekin (2015eko abenduaren 6an onartu zen). Gogora ekarri behar da Nafarroako Gobernuak hitzordu horretan parte hartu zuela mundu guztiko beste ehun eskualderekin batera, eta dokumentu bat sinatu zuela; haren bidez, 2050. urterako berotegi-efektuko gas-isurketak % 80 murrizteko konpromisoa hartzen du 2012ko isurketekin alderatuz.

Ibilbide-orria

Gogora ekarri behar da Nafarroako Gobernuaren 2015-2019 legealdiko [Programa Akordioak](#), Ingurumeneko blokean ondorengoa ezartzen duela: Foru Komunitatean ingurumeneko estrategia integral eta zeharkako bat prestatzeko eta ezartzeko proposamena, eta Europar Batasunaren 20/20/20 izeneko konpromisoa hartzea: isurketak % 20 murriztea, eraginkortasun energetikoa % 20 handitzea eta beste % 20 bat, energia berriztagarrietatik sortutako azken energia. Gainera, berotegi-efektuko gasak eta era guztietako gasak nahiz osasunerako partikula kaltegarriak murrizten jarraitzea proposatzen da. Halaber, Programa Akordioak ingurumen-iraunkortasunari lotutako energia-eredu bat aipatzen du.

Ibilbide-orri horren helburua klima-aldaketari lotutako etorkizuneko politikak hartzea da, adibidez: CO2 isurketak arintzea, sektore ahulenak egokitzea eta jardunbide egokiak ezartzea; ekintza horiek komunikatzea eta gai horren gainean sentsibilizatzea.

Hizlariak

Daniel Innerarity: Filosofia Politiko eta Sozialeko katedraduna, Euskal Herriko Unibertsitateko "Ikerbasque" ikerlaria eta bere Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendaria. Irakasle gonbidatua izan da Europako nahiz Ameriketako zenbait unibertsitatetan, eta "El Pais" egunkariko ohiko kolaboratzailea da. Hainbat sari erdietsi ditu: Saiakera Sari Nazionala, Eusko Ikaskuntza-Caja Laboralaren Humanitate, Arte, Kultura eta Gizarte Zientzien Saria, eta 2013ko Kulturaren Vianako Printzea Saria

Javier Martin-Vide: Matematika Zientzietan lizentziatua eta Geografia eta Historian doktorea. Bartzelonako Unibertsitateko Geografia Fisikoko katedraduna da; Bartzelonako Zientzia eta Arteen Errege Akademiako akademikoa; eta prezipitazio, hiri-klimatologia eta aldakortasun nahiz klima-aldaketaren probabilitaten azterketan espezialista. Espainiako Klimatologia Elkartearen lehendakaria izan zen (1999-2004), bai eta Espainiako Geografoen Elkartearen lehendakaria ere (2009-2013). Gainera, Kataluniako Klima Aldaketaren Aditu Taldearen koordinatzailea da, eta Ura Ikertzeko Institutuko zuzendaria.

Joseba Azkarraga Etxagibel: Soziologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean irakasle eta ikertzaile izan zen 14 urtez, eta bertan irakaskuntza, ikerketa eta aholkularitzako lanak egin zituen euskal kooperatibetarako eta Mondragon Korporaziorako. LANKI ikerketa-institutuko sortzaileetako bat izan zen. Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea da (Soziologia eta Gizarte Langintza Saila). Hainbat sari eta aitortza jaso ditu egindako saiakera soziologikoengatik. Haren ikertzeko lan nagusiak ekonomia sozial-solidarioa eta iraunkortasunerako trantsizioa (bere kultur dimentsioa bereziki) dira. Iraunkortasunari lotutako gaiari buruzko ikerketa-egonaldiak ere egin ditu AEBetan eta Txilen.